

ANTZUOLA / Patxiku Txerren ipuin sariketako liburuxka hilaren 21ean aurkeztuko da

ANTZUOLA. DV.

Patxiku Txerren ipuin sariketan aukeratu dituzten lanen aurkezpena gaurko iragarrita bazegoen apirilareko kultur egutegian, hilaren 21ean, zapatuan zortzi, egingo da liburutegian. Apartatutako lanekin liburuxka osatu da eta huraxe aurkeztuko dute ekitaldi honetan.

Hamargarren edizioa bete du aurten sariketak eta hainbat neska-mutikok hartu du parte euren idazlanekin. Liburuaren aurkezpena egin aurretik, arratsaldeko seietan eta leku berean, liburutegian, Apika taldeak ipuin kontaketa saioa eskainiko du.

Jolas tailerra

Herriko neska-mutikoek badute zertaz gozatua gaur. Izan ere, goizeko hamaiketatik eguerdiko ordu batera zortzi eta hamabi urte bitartekoentzat jolas tailerra jarriko da martxan eskolako patioan, eguraldi ona lagun bada behintzat. Munduan egiten diren hainbat jolas aurkeztuko dituzte bertan, Antzuolako neska-mutikoek ere ezagutu eta erabil ditzaten.